

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Publizitatea

Egin Bazkide

**AURREKO
EDIZIOAK**

Aukeratu nahi duzun data
2011
apirila
26

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



HITZALDIA BIHAR - SAGARDOA HERNANIKO ONDARE

Jakoba Errekondo: «Sagardoa da Hernaniko ondare garrantzitsuenetako bat»

Jakoba Errekondo usurbildarrak hitz egingo du bihar, Biterin, arratsaldeko 19:00etan, Hernaniko sagardogileek eta Berriak elkarteak antolatuta. Sagardoak Hernaniko etorkizunean izan dezakeen lekuari buruz hitz egingo du Errekondok.

2011/04/04 - Astelehena

«sagardoak eta sagardogintzak sekulako garrantzia izan du hernani eta inguruko herrien historian. erromatarren garaitik hasi eta atzo arte, sagardoa bera izan da euskari garrantzitsuenetakoa gure herrietan. historian hain garrantzitsua izan den ondare batek, zein leku behar du etorkizunean?». jakoba errekkondok hitz egingo du bihar, biterin, hernaniko sagardogileek eta berriak merkatarri eta ostalari elkarteak deituta.

hitzaldiak ausnarketa bat egiteko bidea eman nahi die, bai herritarrei, bai herriko taldeei eta bai udalari. gaiari buruz interesatuta dauden guztiak gonbidatu dituzte antolatzaileek.

urik edan ezin zen garaian, sagardoa

errekkondok garbi dauka, sagardoak funtsezko lekua izan duela hernani eta inguruko historian. «ur potablea atzoko kontua da. urik edan ezin zen garaian, batzuk ardoa zuten, besteek zerbeza... eta guk, sagardoa. gaur egun ezagutzen dugun hernani, ez zen posible izango sagardogintzarik gabe».

«etorkizunera begira, ondarea ezinbestekoa da»

sagardogintzak sekulako garapena izan zuela dio errekkondok, eta hori ondare izugarria dela, hernani bezalako herri batentzat. «sagardoa da hernaniko ondare garrantzitsuenetako bat. noski, hernaniarrek erabaki behar dute etorkizunean zein leku eman nahi dioten sagardoari. nire ustez, ondarea da etorkizuna, eta hori landu egin behar luke hernanik. lehenengo jabetu, ikusi, gaur egunera egokitu, eta horren inguruan zer egin litekeen erabaki».

turismorako bide bat

turismoa bultzatzeko bide bat ote den galdetuta, errekkondok dio, baietz; baina ez turismorako bakarrik. «ez gara turismoaz bakarrik ari. identitateaz ari gara. herri baten identitatea landu egin behar da, eta ondareak bere biziko garrantzia du, horretan. turismoari ere emango diola? horixe. donostiari kontxak ematen dion bezala, tolosari babarrunak, edo getariari txakolinak».

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

ARGAZKIAK



IKUSI

Momentu honetan inkestari ez dago

Eztabaida Lekua



GAURKO KRONIKA

RENFEKO NEGUOKO ORDUTEGIA



 Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

[web mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005